



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailak 25

Vitoria-Gasteiz, 25 de febrero de 2020

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK ONARTU DU GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEN BIKTIMEI ERREKONozIMENDUA ETA ERREPARAZIOA EMATEKO 12/2016 LEGEAREN APLIKAZIO-DEKRETUA

- Dekretuak definitzen du eskaerak baloratzeko batzordearen funtzionamendu-araudia
- Hemendik aurrera, Balorazio Batzordea deituko da eta lanei ekingo die, Dekretu honetan ezarritako prozeduraren arabera

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio 12/2016 Legearen —apirilaren 4ko 5/2019 Legearen bidez aldatua— IV. kapituluaren araututako prozedura garatzen duen Dekretuari. Dekretuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituen pertsonari biktima-izaera aitortzea.

Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusten den Dekretu horrek Balorazio Batzordearen jarduteko modua zehazten du. Batzorde horren funtzioa da aurkeztutako eskabideak baloratzea eta, hala badagokio, biktima-izaeraren deklarazioa proposatzea —baita bidezko erreparazio-neurriak proposatzea ere—, edo aurkeztutako eskabidea ukatzea.

Onartutako Dekretuak atal hauek ditu: azalpen-zatia, 13 artikulua eta azken xedapen bat.

Dekretuaren edukia

- Aplikatzekoak diren bi aldi historikoetako bakoitzean giza eskubideen urraketan biktimak egon daitezkeen kasuen **sailkapena**: hildako biktimak, ezintasun maila desberdinetako lesio iraunkorrak edo baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorrak dituzten biktimak eta, azkenik, tratu txar larrien eta lesio ez-iraunkorren biktimak (**3. artikulua**).
- **Balorazio Batzordearen jardunaren erregulazioa eta printzipioak**. Balorazio Batzordearen funtzioa da aurkeztutako eskabideak baloratzea eta biktima-izaera deklaratzeko edo izaera hori ukatzea. Ildo horretan, Dekretuak Balorazio Batzordeari dagozkion betebeharrak nabarmentzen ditu. Balorazio Batzordearen jardunak bermatu beharko du ez dela funtzio juridikozionala inbadituko. Balorazio Batzordeak baldin badaki kausa judizialak edo zehapen-prozedura administratiboak irekita daudela, prozeduraren tramitazioa eten beharko da (**4. artikulua**).
- **Konfidentzialtasuna eta datuen babesa**. Balorazio Batzordeko kideek konfidentzialtasun-konpromisoa sinatuko dute espedienteak eskuratu aurretik, eta kargua utzi ondoren ere luzatuko da konpromiso hori (**5. artikulua**).

- Balorazio Batzordeak instrukzio-fasean garatu ahal izango dituen **jardunak, txosten tekniko batekin amaituko direnak (6. artikulua)**.
- Administrazio-espedienteetan parte hartzen duten **hirugarrenen eskubideen bermeak**; eskubide horien artean sartzen dira, besteak beste, ohorerako, errugabetasun-presuntziorako eta datu pertsonalak babesteko eskubideak eta eskubide horiek babesteko hartuko diren neurriak. Nolanahi ere, haien berme juridikoetan eta konstituzionaletan eraginik ez dela sortzen bermatuko da (**7. artikulua**).
- Balorazio Batzordeak egin beharreko **elkarrizketen protokoloa (8. artikulua)**.
- **Erakundeen arteko lankidetzaren printzipioa**. Agintariekin, organismoekin eta erakunde edo pertsona publiko edo pribatuekin izan beharreko harremanak erakundeen arteko lankidetzaren printzipioaren arabera garatuko dira, eta borondatezkoa izango da. (**9. artikulua**).
- Balorazio Batzordea osatzen duten adituek idatzi beharreko **txosten teknikoaren** edukiak, txostena zer ataletan egituratzen den zehaztuta (**10. artikulua**).
- Eskaera bakoitza ebazteko Balorazio Batzordeak egingo duen **txosten arrazoituaren** gutxieneko edukiak (**11. artikulua**).
- Balorazio Batzordearen **urteko txostenaren** gutxieneko edukiak, txosten horretan emango da lanaren emaitzen berri (**12. artikulua**).
- Lortutako emaitzen berri modu globalean emango duen **azken txostenaren** edukiak; txosten horretan gomendioak ere adieraziko dira (**13. artikulua**).

Hemendik aurrera, Balorazio Batzordea deituko da eta lanei ekingo die, Dekretu honetan ezarritako prozeduraren arabera. Horrela, giza eskubideen urraketen biktimen errekonozimendurako eta baloraziorako 12/2016 Legeak bere bidea jarraitzen du, ezarritako legezko eta prozedurazko ibilbidearekin bat etorritz.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

**EUSKO JAURLARITZAK UKO EGIN DIO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN TURISMO IBILGAILU GIDARIDUNEN (TIG) ZERBITZUA
ERREGULATZEN DUEN ARAUDIAREN LAU ARTIKULU
INDARGABETZEARI, LEHIAREN BATZORDE NAZIONALAK HALA
ESKATU BADIO ERE**

- Eusko Jaurlaritzak uste du dekretuan bildutako mugak beharrezkoak, proportzionatuak eta legitimoak direla, interes orokorreko taxi-zerbitzua mantentzea eta bi garraio-modalitateen arteko oreka bermatzea baitute helburu

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du *Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak* [Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-ibilgailu gidaridunen \(TIG\) zerbitzua emateko baldintzak arautzen dituen dekretuaren](#) 2., 3., 4. eta 5. artikulua indargabetzeko egin dion errekerimenduari uko egitea. Errekerimendu hori euskal araudiaren lau artikuluen kontrako errekurtsioa aurkeztu aurreko urratsa da. Artikuluok honako alderdi hauek dituzte aztergai:

- ✓ Zerbitzua hogeita hamar minutu lehenago kontratatu beharra.
- ✓ Bezeroen bila zirkulatzeko, erabilgarri daudela erakutsita aparkatuta egoteko eta ibilgailuak kontratatu aurretik geolokalizatzeko debekua.

EUSKAL DEKRETUA: BEHARREZKOA, PROPORZIONATUA ETA LEGITIMOA

Eusko Jaurlaritzak *Batzorde Nazionalari* gogorarazi dio eskumen osoa duela ibilgailu gidaridunak alokatzeko baimenak emateko. Ildo horretan, abenduan onartutako araudia legitimoa, beharrezkoa eta proportzionatua da Euskal Autonomia Erkidegoan TIGen zerbitzuari ezartzen dizkion mugetan, bere helburua baita interes orokorreko zerbitzu publiko bat —taxi-zerbitzua— mantentzea eta hiri barruko bi garraio-zerbitzu moten arteko oreka gordetzea.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzak gogorarazi du TIGen zerbitzurako gutxieneko aurrekontratazio-aldia ezartzearen eta ekintza jakin batzuk debekatzearen helburua dela iruzurra saihestea eta taxi-zerbitzuaren iraunkortasuna eta egonkortasuna mantentzea, zerbitzu publiko beharrezkoa eta interes orokorrekoa da-eta. Gogorarazi du taxiei eta TIGei ezartzen zaizkien eskakizunak oso desberdinak direla. Esate baterako, taxiek oso erregulazio zorrotza bete behar dute: lizentziak, tarifa finkatuak eta kalitate-, segurtasun- eta irisgarritasun-maila jakinak. Bi garraio-zerbitzuak baldintza-berdintasunean lehiatuko balira, ez litzateke defendatuko taxiek ematen duten zerbitzuaren interes orokorra.

SEKTOREAREKIKO LANKIDETZA

Euskal dekretua *Taxiaren* eta *TIGen Mahaiaren* lankidetzaren emaitza da. Beste autonomia-erkidego batzuetan istiluak eta gatazkak izan badira ere, Euskal Autonomia Erkidegoan bi negozio-ereduek elkarrekin lan egin dute Euskal Autonomia Erkidegoan sektoreko jarduera modu ahalik eta eraginkor eta antolatuenean erregulatzen duen araua prestatzen.

Egindako lana, bereziki azken urte eta erdian, zorrotasun eta gardentasun handieneko giroan garatu da, eta horri esker ezarri da administrazioak dekretu hori egiteko esparrua, betiere indarreko araudiaren eskakizun guztiak beteta eta gizartearen interes publikoa eta orokorra ziurtatuta.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAK (IVAP) ETA BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAK (BJKN) LANKIDETZAN JARRAITUKO DUTE ESPARRU JUDIZIALEAN LAN EGITEN DUTEN PERTSONAK PRESTATZEN

- **Bi erakundeek lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute gutxienez beste bi urterako**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren (BJKN) eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) arteko [hitzarmena](#), esparru judizialeko prestakuntzarako.

Akordioak hainbat ekitaldiren antolaketa arautzen du: zikloak, ikastaroak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, ikerketaren zein prestakuntzaren esparruan, karrera judiziala osatzen duten pertsonen eta, orobat, euskal administrazio publikoetako langileei zuzenduak. Antolatutako jardueretan lehentasuna emango zaio Europar Batasuneko zuzenbidea aplikatzeari.

Gaur onartu den testuaren arabera, alderdien, hots, BJKNren zein IVAPen bina ordezkariak osatuko duten Jarraipen Batzorde Mistoa sortuko da, hitzarmenaren jarraipena egiteaz, hura zaintzeaz eta kontrolatzeaz arduratuko dena. Organo hori gutxienez urtean behin bilduko da lankidetzaren emaitzak aztertzeko.

BJKNren eta IVAPen arteko hitzarmenak bi urterako egongo da indarrean eta 2017ko maiatzaren 25ean sinatu zutena berrituko du. Gaur onartu den testua bat dator indarreko legeriarekin eta erakunde biei aukera ematen die lankidetzan sendo jarraitzeko.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

JAURLARITZAK BESTE 700.000 EURO INBERTITUKO DITU BANDA ZABALA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA-EREMUETARA ETA BIZTANLE GUTXIENEN EREMUETARA HEDATZEKO PROGRAMAN

- **Gaur onartutako laguntzei esker 2022. urtera arte beste 58 gune zuri desagerraraztea eta, hartara, biztanlegune horietako pertsona eta enpresen konektagarritasuna hobetzea lortuko da**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2020., 2021. eta 2022. urteetarako belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntza-deialdi berria. Hala, Eusko Jaurlaritzak aurrera jarraituko du “*gune zuriak*” desagerrarazteko apustuarekin. Operadore pribatuentzat inbertsioak egiteko erakargarriak ez direnez, telekomunikazio-azpiegiturarik ez duten biztanlegune sarritan bakartuei eta landatarrei esaten zaie gune zuri. Horrek areagotu egiten du biztanleria kontzentratzen duten herriekin duten konektagarritasun-arrakala, eta horregatik sustatzen du Eusko Jaurlaritzak banda zabala hedatzea eremu horietan.

Belaunaldi berriko sarbide-sareak —gutxienez 100 Mb/s, bi noranzkoetan— Euskal Autonomia Erkidegoko biztanlegune guztietara hedatzeko laguntza-programa zabalduak beste 700.000 euro izango ditu, honela banatuta:

- **2020ko ekitaldia:** 200.000 euro
- **2021eko ekitaldia:** 400.000 euro
- **2022ko ekitaldia:** 100.000 euro

Hala, Eusko Jaurlaritzaren asmoa da Internet konexioa, lasterra eta segurua, NGA banda zabalaren baldintzetan, beste 58 biztanlegunetan ezartzea:

- ✓ 3 Araban
- ✓ 45 Bizkaian
- ✓ 10 Gipuzkoan

Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko 1.700 eraikin publikoetan, parke, poligono eta eremu industrialetan eta biztanlegune guztietan banda zabala gaitzeko abian jarritako baterako jarduketa koordinatuei gehitzen zaizkie laguntza horiek.

OINARRI ARAUTZAILEAK

Laguntza-deialdi hori aurki argitaratuko da *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian*. Lehiaketa publikoa ebazten denean, banda zabala 24 hilabeteko epean hedatuko da, laguntza eman izana jakinarazten den egunetik aurrera. Eusko Jaurlaritzaren onuradun diren konpainiek nahitaez eskaini beharko diete handizkako sarbide efektiboa, ekitatezkoa eta ez-diskriminatzailea hala eskatzen duten gainerako operadoreei, gutxienez ere zazpi urteko epean.

Eskabideak soil-soilik egoitza elektronikoaren bitartez egin beharko dira: www.euskadi.eus.

ITELAZPI

[Itelazpi SA](#), Eusko Jaurlaritzaren telekomunikazio-sozietatea, izango da banda zabala Euskal Autonomia Erkidegoko beste 58 biztanlegunetara hedatzeko laguntza horiek kudeatzeaz arduratuko den erakunde laguntzailea. Eusko Jaurlaritzaren telekomunikazio-sozietateak honako ardura hauek izango ditu:

- Aurkeztutako proiektuen dokumentazioa aztertzea eta, behar izanez gero, hura zuzen ulertu eta aztertzeko behar den dokumentazioa eskatzea.
- Proiektuak ebaluatzea eta Ebaluazio Organoari igortzea.
- Laguntzak proposatzea eta Ebaluazio Organoari igortzea.
- Proiektuak egikaritzen direla egiaztatzeko ikuskatze-lanak egitea.
- Eskatutako aldaketen irispideari buruzko txostenak egitea.
- Hala badagokio, proiektua egikaritzearen inguruko gorabeheren ondoriozko ez-betetzeen espedientea hasteko proposamena egitea.

EUSKADIKO 2020ko AGENDA DIGITALA

Eusko Jaurlaritzaren asmo handiko proiektu estrategiko hau 2016an onartutako “[Euskadiko 2020ko Agenda Digitalean](#)” kokatzen da. Eusko Jaurlaritzak apustu garbia egin du edozein biztanlegunetan bizi diren pertsonen eta bertan kokatzen diren enpresen konektagarritasuna hobetzearen alde, biztanlegune horien biztanle kopurua eta dimentsioa dena dela ere. Azken helburua da zentro publikoen, enpresen eta etxeen konektagarritasuna hobetzea, horrela lortuko baita Euskal Autonomia Erkidegoa lurralde adimenduna, hots, *Smart Country* izatea.

Halaber, programa horri esker “*Europako 2020ko Agenda Digitalean*” ezarritako helburuak beteko ditu Euskal Autonomia Erkidegoak, hau da, belaunaldi berriko banda zabala (gutxienez 30 Mb/s) biztanle guztientzat unibertsalizatzea eta 2020. urterako biztanleen % 95ek 100 Mb/s-tik gorako abiadurako banda zabal ultralasterreko zerbitzuak kontratatuta izatea.

Enplegua eta Gizarte Politikak

LANBIDEK 56 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO BIDERATUKO DITU DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ENPLEGUA SUSTATZERA

Gobernu Kontseilua, gaur Gasteizen bilduta, onartu egin ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako zenbait erabaki. Erabaki horien helburua da desgaitasuna duten pertsonen enplegua bultzatzea, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituen kolektiboetako bat baita.

Alde batetik, Gobernuak onartu egin du Lanbideren Administrazio Kontseiluaren akordioa. Horren arabera, erakunde autonomoak 50,6 milioi euro bideratuko ditu aurten enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuei eusteko laguntzetara.

2019an, 75 enplegu-zentro berezi izan ziren neurri horren onuradun. Horien urteko batez besteko plantilla desgaitasuna duten 10.145 langilekoa zen. Kopuru hori aurreko urteetako baino handiagoa izan zen. Izan ere, 2018an plantilla 9.635 langilekoa zen batez beste, eta 2017an, berriz, 9.374koa. Horrek esan nahi du 2019an enplegu-zentro bereziek kontratatutako desgaitasuna duten pertsonen kopurua 510 pertsona handiagoa zela.

Neurri horren helburua da desgaitasuna duten pertsonen lan-jarduera egonkorra eta kalitatezkoa eskura dezaten sustatzea, eta desgaitasuna duten pertsonen betetzen dituzten lanpostuen soldata-kostuak finantzatzera bideratuta dago.

Enplegurako laguntzak

Horrez gain, Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak beste bi neurri adostu ditu, desgaitasuna duten pertsonen babes eskaintzera bideratutako laguntzak xede dituztenak, beren zeregin profesionalak enplegu-zentro berezietan zein enpresa arruntetan egin ahal izan ditzaten.

Zehazki, Lanbide milioi bat euro inbertituko du laguntza bidezko enplegurako jardunetara zuzendutako laguntzetan, desgaitasuna duten eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntetan gehiago sartzeko neurri gisa.

Gainera, beste bost milioi euro bideratuko ditu aurten gure autonomia-erkidegoan dauden enplegu-zentro berezietako Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateak finantzatzeko laguntzen deialdira.

Enplegu-zentro bereziek hilabeteko epea dute, aipatutako erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik, eskabideak osatzeko.

Enplegu-zentro bereziak

Enplegu-zentro berezien xede nagusia da ondasunen edo zerbitzuen jarduera produktiboa egitea, merkatuko eragiketetan erregularitasunez parte hartuta. Eragiketa horiek helburu dute desgaitasuna duten pertsonen ordaindutako enplegua ziurtatzea, eta, aldi berean, pertsona horien ahalik eta kopuru handiena enplegu arruntaren erregimenean sartzeko bidea dira.

Laguntza horiez gainera, desgaitasuna duten pertsonen enplegua Gizarte Segurantzako kotizazioan hobariak emanda sustatzen da. Hobari horiek, Estatuak erregulatuta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura finantzatzen dira.

Informazio gehiago hemen: www.lanbide.euskadi.eus.

Enplegua eta Gizarte Politikak

LANBIDEK LAU MILIOI INBERTITUKO DITU PERTSONA ETA PROIEKTU EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO

Gobernu Kontseiluak onartu egin du gaur Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioa. Erabaki horren bidez, ekintzaileak babesteko laguntzen deialdia onartu da 2020ko ekitaldirako, dirulaguntzen lau lerroren bidez. Guztira, lau milioi euro bideratuko ditu Lanbidek aurten.

Babes hori ekintzailtza-proiektuaren alderdi hauetan gauzatzen da:

- 1.- Ekintzaile potentzialentzako laguntzak, enpresa-idea bat sortzen, aztertzen eta egituratzen soilik jardun dezaten, ekintzailtza tokiko proiektuen esparruan (enpresa-idea bat garatzeko laguntzak).
- 2.- Negozio-idea zehatz bat duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jar ditzaten bultzatzeko laguntzak, ekintzailtza tokiko proiektuen esparruan (enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak).
- 3.- Enpresa-jarduera berri bat hasi eta hura ezartzeko laguntza ekonomikoa behar duten pertsonentzako laguntzak (proiektua ezartzeko laguntzak).
- 4.- Enpresa-jarduera bat hasi duten pertsonentzako laguntzak, hura finkatzeko (enpresa-jarduera bat finkatzeko laguntzak).

Halaber, deialdi honen xede dira enpresa-idea bat garatzeko laguntzen eta enpresa-proiektu berriak (toki-erakunde laguntzaileek garatzekoak) abian jartzeko laguntzen onuradun diren ekintzaileak hautatzeko eta haiei laguntzeko eta/edo tutoretza emateko jarduerak estaltzera bideratuta laguntzak.

Dokumentazio eta informazio guztia aurki argitaratuko da www.lanbide.euskadi.eus webguneak.

Deialdi honetan aurreikusita dago toki-erakundearen lankidetzaren, horien mendeko erakundeak barne, ekintzaileen laguntzarako eta/edo tutoretzarako, negozio-idea bat aztertzeko eta garatzeko prozesuan, eta enpresa-jarduera berriak abiarazteko prozesuan, baita horietara zuzendutako laguntzak kudeatzeko eta ordaintzeko prozesuan ere. Horretarako, erakunde horiek Lanbidek aldeztu aurretik baimendu behar ditu, ekintzailtza-proiektuak aurkeztu eta deialdian ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen ondoren. Lankidetzaren erregimenaren baldintzak berriaz izenpetutako hitzarmenetan zehaztea aurreikusten da, deskribatutako jarduerak gauzatzeko baimena eman ondoren.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK ABIAN JARRI DU GAZTEENTZAKO AUZOLANDEGIAK PROGRAMA

- **Parte hartzen duten gazteek aukera izango dute beste autonomia-erkidego batzuetan eta atzerrian dauden auzolandegietan ere izena emateko**
- **Plaza-trukaketan, beste erkidego batzuetako eta atzerriko gazteek Euskal Autonomia Erkidegoko auzolandegietan parte hartzea aurreikusi da**

Gobernu Kontseiluak gazteentzako Auzolandegiak programaren beste deialdi bat onartu du gaur. Datorren udan ekimen hau abian jartzeak erraztu egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko 18 eta 26 urte bitarteko 200 bat gaztek (30 urtera arte, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat) EAEko, beste autonomia-erkidego batzuetako eta atzerriko auzolandegietan parte hartzea. Plaza-trukaketan, beste erkidego batzuetako 100 bat gaztek eta atzerriko 50 bat gaztek Euskal Autonomia Erkidegoko auzolandegietan parte hartzea aurreikusi da.

Interesdunek apirilaren 1etik 22ra bitartean, biak barne, eman ahal izango dute izena Interneten dagoen formularioaren bitartez: www.gazteaukera.euskadi.eus. Datorren udan, Euskadiko auzolandegietan parte hartzen dutenek askotariko jardueratan parte hartuko dute, hala nola: Agurainen hezegune bat leheneratzea; Maeztun indusketa arkeologiko bat egitea; Gaubean Villamordoneseko herri hustua egokitzea; Sopuertan bidegorri bat gaitzea; Bergarako eta Lekeitioko egoitzetan hirugarren adineko pertsonak dinamizatzea; Lemoan lubakiak eta memoria historikoa berreskuratzea; eta Zamudion kalteberatasun nutrizionaleko egoeran dauden pertsonen elikagaiak banatzea eta laguntzea.

Aguraingo, Gaubeako eta Lemoako auzolandegiak nazioartekoak izango dira, eta atzerritarrak ere izango dira bertan. Ingelesa izango dute erreferentzia-hizkuntza. Gainerako auzolandegietan hainbat autonomia erkidegotako gazteek hartuko dute parte, eta euskara eta gaztelania izango dituzte erreferentzia-hizkuntza.

Gainera, urtero bezala, plazak eskainiko dira gainerako autonomia-erkidegoetan eta atzerrian dauden auzolandegietarako; besteak beste, honako hauetan: Alemania, Armenia, Estonia, Frantzia, Grezia, India, Islandia, Italia, Letonia, Maroko, Nepal, Txekiar Errepublikak, Errusia, Serbia, Taiwan eta Turkia.

Auzolandegien bitartez, hainbat balio sustatzen dira, hala nola: bizikidetzaren tolerantzia, elkartasuna, parte-hartzea, kulturen arteko ikaskuntza, etab.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK MILIOI BAT EURO BIDERATU DU LANBIDE HEZIKETAKO ITUNPEKO IKASTETXEEN HORNIKUNTZARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2019-2020 ikasturterako dirulaguntzak deitzen dituen Agindu bat, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeen hornikuntzarako.

Milioi bat euroko diru-kopurua duen deialdi honen xedea da Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxeei, heziketa-zikloetan curriculum-garapenak eskatzen dituen metodo eta erreminta berritzaileak ezartzeko beharrezko dituzten ekipamendu eguneratuak eskuratzeko finantzazioan laguntzea. Laguntza horiek izan daitezke ekipamenduaren erosketa edo alokairuen kuotak finantzatzeko, nahiz ekipamendua instalatzeak eragindako gastuak arintzeko. Era berean, deialdi honek aurreikusiriko laguntzak Enplegu-prestakuntzarako eta lanbide-espezializaziorako programatarako ekipamenduak ere aintzat hartzen ditu.

Gaur egun, Lanbide Heziketa funtsezkoa da Euskadin bai pertsonen enplegagarritasunerako, bai enpresen lehiakortasunerako. Erronka horiei behar bezala heltzeko, Lanbide Heziketako ikastetxeek aktiboki parte hartu behar dute gero eta espezializatuagoak eta konplexuagoak diren inguruneetan ikaskuntza-metodo berritzaileak ezartzeko aukera emango duten proiektuak diseinatzeko eta garatzen. Horrela, ikasleek eskuratutako ezagutzaren benetako transferentzia errazten da, eta, azken batean, enpresen espezializazio-maila handitzen da. Zeregin horretan, ekipamendu eguneratu eta espezifikoak izatea ezinbestekoa da Lanbide Heziketako ikastetxeentzat.

Diruz lagunduriko ekipamendua ondorengo lanbide-arloetako heziketa-zikloetarako eskuratu beharko da: Elektrizitatea eta elektronika; Fabrikazio mekanikoa; Elikagaien industriak; Arte grafikoak; Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak; Instalatze eta mantentze lanak; Kimika; Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak; Energia eta ura; Itsasoa eta arrantza; Informatika eta komunikazioa; edo Osasuna.

Ikastetxeetatik jasoriko finantzazio eskaeren balorazioa egiteko, batzordeak kontuan hartuko dituen irizpideak honakoak dira: eskaera egiten duen ikastetxeak eskaintzen duen ziklo kopurua; ziklo horietan 2019-2020 ikasturtean matrikulaturiko ikasle kopurua; edo Enplegu-prestakuntzarako programatan emandako prestakuntza ordu kopurua.

Laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxeek, 2019-2020 ikasturtean aurrez aipaturiko lanbide-arloetako oinarrizko, erdi mailako edo goi mailako heziketa zikloren bat baldin badute. Joan zen 2018-2019 ikasturtea, Lanbide Heziketako itunpeko 37 ikastetxe izan ziren orotara laguntza hauen onuradun, Hezkuntza Sailak urtero argitaratzen duen deialdi honen bidez.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 150.000 EUROKO KONTU-SAILA ONARTU DU AURTENGO EUSKADI LITERATURA SARIAK ANTOLATZEKO

- **Irabazle bakoitzak 18.000 euroko saria jasoko du; kopuru horri beste 4.000 euro gehituko zaizkio saritutako lanak beste hizkuntza batera itzultzen badira**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 150.000 euroko kontu-saila onartu du, bere gaurko saioan, 2020ko Euskadi Literatura Sariak antolatzeko. Joan den urtean bezala, sariak zazpi modalitate izango dituzte eta irabazle bakoitzak 18.000 euroko saria jasoko du. Diru-kopuru horri beste 4.000 euro gehituko zaizkio saritutako lanak beste hizkuntza batzuetara itzultzen badira.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatzen dituen Euskadi Literatura Sariak modalitate hauek dituzte:

- Euskarazko literatura.
- Gaztelaniazko literatura.
- Euskarazko haur eta gazte literatura.
- Euskarazko literatura itzulpena.
- Literatura lanaren ilustrazioa.
- Euskarazko saiakera.
- Gaztelaniazko saiakera.

Modalitate bakoitzeko saridunek 18.000 euro jasoko dituzte. Halaber, saritutako lanen egileek (euskarazko itzulpenaren modalitatean izan ezik) beste 4.000 euro gordin jasoko dituzte, baldin eta saritutako lana jatorrizkoaz bestelako hizkuntza batean argitaratzeko kontratua 2020ko abenduaren 31 baino lehen sinatzen badute.

lazio Euskadi Literatura Sarietako irabazleak honako hauek izan ziren:

- Literatura Euskaraz: Irati Elorrieta, *Neguko argiak*.
- Literatura Gaztelaniaz: Ramón Eder, *Palmeras Solitarias*.
- Saiakera Euskaraz: Juan Carlos Etxegoien 'Xamar', *Etxera bidean*.
- Saiakera Gaztelaniaz: Daniel Innerarity, *Política para perplejos*.
- Haur eta Gazte Literatura Euskaraz: Patxi Zubizarreta, *Korri, Kuru, korri!*.
- Lan Literarioaren Ilustrazioa: Asisko Urmeneta, *AztiHitza: Xahoren Biografiaren*.
- Euskarazko Itzulpen Literarioa: Isabel Etxeberria, *Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak* (de Alice Munro).

Segurtasuna

ALDERDI POLITIKOEN OHIKO FUNTZIONAMENDURAKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DA

Gobernu Kontseiluak onartu du, Segurtasun Sailaren proposamenari jarraituta, Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita dauden alderdi politikoei eman beharreko diru-laguntza, 2020ko urtarrilaren 1etik apirilaren 5era bitarteko, biak barne, alderdien funtzionamendu arruntaren gastuak ordaintzeko. Diru-laguntzaren banaketa egitean, kontuan hartu dira, bai Eusko Legebiltzarrerako 2016ko hauteskundeetako emaitzak, bai 2020ko apirilaren 5era arte, hau da, hauteskunde-deialdiaren egunera arte, dagokien diru-laguntzaren proportzioa. Lehen kalkulua egin ondoren, lehen aldi horretan 1.189.770 euro banatu behar dira.

2020ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan aintzat hartutako 4.536.000 euroko partida osatu arte geratzen den 3.346.230 euroko zenbatekoa, berriz, Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetako emaitzen arabera banatuko da.

Bigarren aldiari dagokionez, kontuan izango dira 2020ko apirilaren 5ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen emaitza ofizialak.

Aldi horretarako diru-laguntzen banaketa honela ezarri da:

EAJ- PN	459.253,27 €
EH-Bildu	271.167,50 €
Elkarrekin Podemos	181.132,82 €
PSE-EE (PSOE)	146.395,88 €
PP	131.820,53 €
GUZTIRA	1.189.770,00 €

Lana eta Justizia

KARGU-UZTEAK ETA IZENDAPENAK

Lan eta Justizia Saileko bi kargu datozen apirilaren 5eko hauteskundeetako hautagai izango direnez gero, eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean hautatua izateko ezintasunari dagokionez xedatutakoaren indarrez, honako kargu-uzte eta izendapen hauek egin dira.

Kargua utzi du Dolores de Juan de Miguel Justiziako sailburuordeak, eta Justiziako sailburuorde izendatu dute Mikel Unzalu Hermosa jauna, orain arte Kabineteko zuzendari zena. Era berean, Nicolás Del Val Arregui jauna izendatu dute Kabineteko zuzendari.

Bestalde, eta Legebiltzarrerako hauteskundeetan hautagai izango denez gero, kargua utzi du Alberto Alonso Martín Osalaneko zuzendari nagusiak eta, Lourdes Iscar Reina izendatu dute Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusi, orain arte Osalaneko Lan Osasuneko Unitateko arduradun izan dena.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL DECRETO DE APLICACIÓN DE LA LEY 12/2016 DE RECONOCIMIENTO Y REPARACIÓN DE VÍCTIMAS DE VULNERACIONES DE DERECHOS HUMANOS

- El Decreto define el Reglamento de funcionamiento del órgano de valoración de las solicitudes
- A partir de ahora, la Comisión será convocada e iniciará sus trabajos, de acuerdo al procedimiento establecido en este Decreto

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde al Decreto que desarrolla el procedimiento regulado en el capítulo IV de la Ley 12/2016, dirigido al reconocimiento de la condición de víctima de la persona que haya padecido vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre 1978 y 1999, modificada por la Ley 5/2019, de 4 de abril.

El decreto, previsto en la disposición adicional séptima de la ley, determina la forma de actuación de la Comisión de Valoración, cuya función es valorar las solicitudes presentadas y proponer, cuando proceda, la declaración de la condición de víctima y, en su caso, las medidas de reparación o la denegación de la solicitud presentada.

El Decreto aprobado consta de una parte expositiva, 13 artículos y una disposición final.

Contenido del decreto

- **Clasificación** de los diferentes supuestos en que pueden encontrarse las víctimas de vulneración de derechos humanos en cada uno de los dos periodos históricos de aplicación, que se dividen en víctimas fallecidas, víctimas con lesiones permanentes en sus diferentes grados de incapacidad o lesiones permanentes no invalidantes y, finalmente, víctimas de maltrato grave y lesiones de carácter no permanentes (**artículo 3**).
- **Regulación y principios de actuación de la Comisión de Valoración.** La función de la Comisión de Valoración es valorar las solicitudes presentadas y proponer la declaración de la condición de víctima o su denegación. El Decreto subraya, en este sentido, las obligaciones que atañen a la Comisión de Valoración. Su desempeño deberá garantizar que, en ningún caso, se produce invasión de la función jurisdiccional. En aquellos casos en los que la Comisión de Valoración tenga conocimiento de la existencia de causas judiciales o procedimientos administrativos sancionadores abiertos, se deberá suspender la tramitación del procedimiento (**artículo 4**).

- **Confidencialidad y protección de datos.** Los miembros de la Comisión de Valoración suscribirán un compromiso de confidencialidad previo al acceso a los expedientes, que se extenderá tras su cese (**artículo 5**).
- **Actuaciones** que la Comisión de Valoración podrá desarrollar en fase de **instrucción y que culminarán con un informe técnico (artículo 6)**.
